



Arartekoaren ebazpena, 2010eko abenduaren 16koa. Horren bidez, Usurbilgo Udalari gomendatzen zaio industria-sektore baten garapenean udalaren esku-hartze eskaerari berariaz erantzuteko.

Aurrekariak

1. (...) Sektorean kokatuta dagoen eta urbanizagarria den lursail baten jabeak aditzera eman digu urbanizagarri gisa sailkatutako lur eremu horren garapenerako dauden zailtasunak. Sailkapen hori 2005. urtetik indarrean dauden Usurbilgo Plangintzaren Arau Subsidiarioek egiten dute.

Erreklamaziogileak sektore hori garatzean daukan interesa egun burutzen duen merkatu jarduna handitu eta hobetzeko beharretik dator. Hala ere, lurzoru urbanizagarri horretan aurrera egiteko nahia ez dator bat sektore horretako gainontzeko jabeen gehiengoarekin.

Jabeen planteamendu desberdinen artean akordio bat errazte aldera, kexagileak behin baino gehiagotan eskatu dio Usurbilgo Udalari kudeaketa sistema aldatzeko aukera emateko. Horrela, ekimen publikoaren bitartez garatu ahalko zen. Horrez gain, sektorea bi unitatetan banatzeko zenbait proposamen ere aurkeztu dizkio.

Planteamendu horiek 2009ko otsailean aurkeztu zen idazki batean laburbildu ziren. 2009ko uztailean erreklamaziogileak arartekoarengana jo zuen helarazteko, interesa duten alderdien aurrean udal zerbitzuek egindako izapideen kaltetan izan gabe, ez zuela erantzunik jaso eta horregatik erakunde honen esku-hartzea eskatu zuen.

2. Erreklamazio hori izapidetzeko erabakia hartu ostean, 2009ko abuztuan, Usurbilgo Udalari honen inguruko informazioa eskatu genion: kexagileak egindako eskaerei erantzuteko udalak gauzatutako jarduerak eta (...) Sektorearen garapenerako aurreikuspenen gaineko beste edozein informazio.

Informazio hori bidaltzeko errekerimendua igorri eta gero, Usurbilgo Udalak, 2010eko maiatzean, sektorea sustatzeko udalak burututako kudeaketen berri eman zigun idazki baten bitartez. Dena den, kudeaketa horiek ez dute emaitzarik izan gehiengoaren jabearen aurkaritzaren ondorioz. Udalak uste





du kexagileak egindako planteamendua, hau da, kudeaketa sistema aldatzeko edo sektorea bi unitatetan banatzeko proposamena, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 4.4. artikulua ezarritako terminoetan, interes publikoaren menpe jarri behar dela.

Bidalitako informazioan ez da kudeaketa sistema aldatzeko eskaerari emandako erantzuna erantsi eta hori da erreklamazioaren arrazoi nagusia.

Informazio hori kexagileari helarazi ostean, horrek azpimarratu zuen bere proposamenari erantzun bat ematea beharrezkoa dela, beharrezkoak diren izapideak eginez berariazko ebazpena eman arte.

Informazio hori zein kexagileek aipatutako gainerako inguruabarrak ikusita eta horien edukia aztertu ondoren, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut.

Gogoetak

1. Kexa honen arrazoia da (...) Sektorean kokatuta dagoen pabilioi baten eraikuntza errazte aldera, kexagileak egindako eskaeraren erantzunik eza.

Zehatz-mehatz eskaerak hitzarmen bidezko kudeaketa sistema pribatua lankidetzan oinarritutako sistema publikoagatik aldatzeari egiten dio erreferentzia. Bestalde, sektorea bi unitatetan banatzeko hiru proposamen mahaigaineratu zituen.

Udalak, arartekoari bidalitako erantzunean, industria-sektore horren garapena lortzeko lurzorua jabeen artean akordio bat bultzatzeko udalak egindako kudeaketak aipatzen ditu. Kexagileak ere haren erreklamazioan, egoera desblokeatzeko gauzatzen diren etengabeko elkarrizketak aipatzen ditu. Hala ere, erreklamazioaren eta gure ondoko jardueraren zioa zen (...) jaunak proposatutako eskaeraren erantzunik eza mahaigaineratzea.

Erakunde honek aurrekarietan azaldutako kudeaketak egin ondoren, arartekoak ikusi zuen ez dagoela kexagilearen asmoari emandako erantzunik.

Bestalde, udalak arartekoari erantzunik ezaren arrazoiaren inguruko informazioa bidali zion, bai eta egindako kudeaketen ingurukoa ere, baina ez du eskaera dagozkion terminoetan ebatzi.





2. Abiapuntu gisa, gogorazi behar dugu administrazio publikoak behartuta daudela interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariaz erantzutera.

Horrela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikulua berariaz jasotzen du administrazio publiko guztiei zuzendutako agindu hori.

Arau horretako zioen azalpenak dioenez, "lege honen helburua ez da administrazioaren jarduerarik ezari izaera positiboa ematea partikularrak hari zuzentzen zaizkionean. Administrazioaren jarduerarik ezaren izaera positiboa legearen benetako helburua betetzen ez denean ezartzen den bermea da; legearen benetako helburua herritarrek administrazioaren berariazko erantzuna jasotzea eta hori ezarritako epean jasotzea da. Administrazio isiltasunak, nola aldekoa hala kontrakoa izan, ezin du ezarpen juridiko arrunta izan, baizik eta, Administrazioak dagozkion eginkizunak modu eraginkorrean eta arin betetzen ez dituenean, partikularren eskubideak edukirik gabe gera ez daitezen bermatzen du."

Hori dela-eta, esan behar dugu udalak behar bezala izapidetu behar dituela biztanleek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, espedientea behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Era berean, azpimarratu behar da erantzuteko betebeharrak hor dirauela, ebazteko epea iraungi arren, eta diziplina erantzukizuna eragin diezaioke ebazteaz arduratzen den organoaren titularrari.

3. Arartekoak hainbatetan salatu du administrazio isiltasuna oso arriskutsua dela. Izan ere, biztanleak babesik gabeko egoeran kokatzen ditu, ez baitakite administrazioak zer egingo duen euren asmoarekin eta eskatutakoaren inguruko erantzuna berrikustea eragozten baitu.

Biztanle horien erreklamazioak bideratu ez direnez eta horiei erantzun ez zaienez, esan dezakegu administrazioak oker jokatu duela eta arartekoaren erakundeak horren berri eman behar du.

Espainiako Konstituzioak berak –103.1. eta 105. artikuluetan– aipatzen du prozedurazko izapide batzuk daudela eta herritarrei benetako erantzuna eman behar zaiela. Alderdi horiek Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua ematen dien administrazio egokirako eskubidea osatzen dute (gutun hori Europarako Konstituzioa ezartzen duen Itunak barneratu zuen).





Alderantziz, administrazio txartzat jo behar da artikuluko horiek ezartzen duten eginbide funtzionalaren betebeharra urratzea. Betebehar hori honakoen bidez zehazten da: erreklamazioa jaso izana adierazteko betebeharra, zerbitzu eskudunari bidaltzeko betebeharra eta aurkeztutako erreklamazioei arrazoizko epean erantzuteko betebeharra.

Horiek horrela, arartekoak behin eta berriro nabarmentzen du udalak erreklamazioen idazkiei alaitan erantzuteko betebeharra duela.

4. Sektore horren garapenean jardura pribatua ituntzeko udalak aditzera eman dituen zailtasunei eta administrazioaren botereen gauzatzean beharrezkoa den interes publikoaren babesari dagokienez, honakoa hau azpimarratu behar dugu.

Sektore honetan garapena ahalbidetzen duen akordioa lortzeko udalak adierazi duen borondatea, kexagileak onartu duena, ez da eragozpen bat kexagilearen eskaera berariaz ebazteko.

Udalak mahaigaineratu duen printzipioa, hau da, interes partikularra interes publikoaren menpe jartzea bi ikuspuntutatik ulertu behar da. Lehenengoa hiritarren parte-hartzearen ikuspuntutik eta bigarrena ikuspuntu honetatik: *"herri administrazio eskudunek hirigintzako planen aurreikuspenen betetzearen ikuskerapean duten betebeharra eta erantzukizuna, plan horien gauzatzearen kalitateari, kopuruari eta epeari dagokienez* (LHLko 4.3 f artikulua). Hori dela eta, kexagilearen interesa, hau da, plangintzan aurreikusitako hirigintzako antolamendua gauzatzea, bat dator hirigintzako antolamendua gauzatzearen inguruan administrazioak duen boterearen garapenearen betebeharrarekin.

Edonola ere, sektorearen garapenak dagokion plan partziala izapidetzea eskatzen du aurretiko urrats gisa. Hasiera batean plan hori eratzea udalen esku dago baina edozein pertsonak egin dezake.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

25/2010 GOMENDIOA, abenduaren 16koa, Usurbilgo Udalari egina

Ordenamendu juridikoan eta hirigintzako legerian ezarritako terminoetan, hirigintzako ordenamendua gauzatzeko egindako eskaerak izapidetu ditzan.

